

09:00 | BERA

Gaurko herri galdeketek esanahi berezia dute nafarrantzat. Nafarroa Garaia-aren estatus politikoa zehaztu zenean, herritarrok ezin izan genuen zuzenean erabaki. Ukatu zitzaigun Foru Hobekuntza bozkatzeko aukera. Gaur, erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen gaizatzera pasatu gara, sinistuz herritarren hitza aintzat hartzea eta hautetsontziak kalera ateratzea dela bidea, herri baten etorkizun politikoa erabakitzeko.

Gaur, Nafarroako 24 udalerrietako herritarrok estatus politikoari buruzko iritzia bozaren bidez adierazteko aukera izango dugu.

Aukera hori herritarrok ireki dugu. Ahaldundu egin gara. Herriz herri antolatu gara, galdeketaren aldeko indarrak bildu ditugu, herritarrei galdetu diegu eta sinaduren bidez gutxieneko atxikimenduak bildu ditugu, atxikimendu anitzak bildu ditugu, mintegiak eta tailerrak egin ditugu galdera adosteko... prozesu parte-hartzaile eta bateratzailea egin dugu galdeketara iristeko, eta gaur, hamaika boluntarioren laguntzarekin, galdeketak egiten ari gara. Gaur, erabakitzen ari gara. Ilusio handiz, Nafarroan ere erabakiaren aroa zabaltzeko gogo.

Prozesua aberatsa izan da, eskualde eta herrietan adostutako galdera ezberdinek erakusten duten bezala. Olatu nafar honetako galderekin galdeketen prozesu orokorra aberastu dugula uste dugu. Galdera aukera ezberdinak jarri ditugu. Ezberdinak izanagatik, bi kontzeptu nagusi ageri dira denetan: nafartasuna eta burujabetasuna. Nafarroa osorako balio duten zutabeak dira. Nafarrok eremu guztietan erabaki ahal izateko eta burujabe izateko borondatearekin bat egiten dutenak.

Horregatik, animatu nahi ditugu Nafarroako beste eskualdeak erabakiaren bidean murgiltzeko. Demokrazian sakontzen eta burujabeago izaten laguntzen du. Azken batean, etorkizuna erabakitzea denoi dagokigu, denon kontua da, denon artean egin behar dugu.

Herri bat garelako, erabakitzeko eskubidea dugulako eta herritarren garaia delako... Parte hartzeko eta botoa emateko deia egiten diegu Bortzirietako, Imotz eta Basaburuko, Mendialdeko eta Sakanako herritar denei. Etorkizuna gure esku dago! Eta denok gara ezinbestekoak!

12:30 | ALTSASU

Gaurko herri galdeketek esanahi berezia dute nafarrantzat. Nafarroa Garaia-aren estatus politikoa zehaztu zenean, herritarrok ezin izan genuen zuzenean erabaki. Ukatu zitzaigun Foru Hobekuntza bozkatzeko aukera. Gaur, erabakitzeko eskubidea aldarrikatetik gauzatzera pasatu gara, sinistuz herritarron hitza aintzat hartzea eta hautetsontziak kalera ateratzea dela bidea, herri baten etorkizun politikoa erabakitzeko.

Sakanako Etxarri-Aranatz izan zen lehen herria pausoa ematen, Euskal Herri osoan. Gure eskualdean jarri zuten galdeketa hazia 2014an, eta, orduetik, 166 herritara iritsi gara. Gaur, Nafarroako 24 udalerrietako herritarrok estatus politikoari buruzko iritzia bozaren bidez adierazteko aukera izaten ari gara.

Aukera hori herritarrok ireki dugu. Ahaldundu egin gara. Herriz herri antolatu gara, galdeketa-aren aldeko indarrak bildu ditugu, herritarrei galdetu diegu eta sinaduren bidez gutxieneko atxikimenduak bildu ditugu, atxikimendu anitzak bildu ditugu, baita gure eskualdeetako pertsona esanguratsuenak ere; idazle, musikari eta pelotarienak, besteak beste. Mintegiak eta tailerrak egin ditugu galdera adosteko... prozesu parte-hartzaile eta bateratzailea egin dugu galdeketa iristeko, maila guztietan. Bideo eder askoak ere kaleratu ditugu, eta gaur, hamaika boluntarioren laguntzarekin, galdeketa egiten ari gara. Gaur, erabakitzen ari gara. Ilusio handiz, Nafarroan ere erabakiaren aroa zabaltzeko gogoz.

Prozesua aberatsa izan da, eskualde eta herrietan adostutako galdera ezberdinek erakusten duten bezala. Olatu nafar honetako galderekin galdeketa prozesu orokorra aberastu dugula uste dugu. Galdera aukera ezberdinak jarri ditugu. Ezberdinak izanagatik, bi kontzeptu nagusi ageri dira denetan: nafartasuna eta burujabetasuna. Nafarroa osorako balio duten zutabeak dira. Nafarroko eremu guztietan erabaki ahal izateko eta burujabe izateko borondatearekin bat egiten dutenak.

Horregatik, animatu nahi ditugu Nafarroako beste eskualdeak erabakiaren bidean murgiltzeko. Demokrazian sakontzen eta burujabeago izaten laguntzen du. Azken batean, etorkizuna erabakitzea denoi dagokigu, denon kontua da, denon artean egin behar dugu.

Herri bat garelako, erabakitzeko eskubidea dugulako eta herritarron garaia delako... Parte hartzeko eta botoa emateko deia egiten diegu Bortzirietako, Imotz eta Basaburuko, Mendialdeko eta Sakanako herritar denei. Etorkizuna gure esku dago! Eta denok gara ezinbestekoak!

20:30 | LEITZA

Gaur Nafarroan erabakiaren aroa zabaldu dugu. Gaur 7.781 herritarrek burujabe izateko borondatea erakutsi dugu. Urtebeteko prozesuaren ondoren, hitza hartu dugu gure etorkizun politikoaren inguruan. Eta ate hori herritarrok ireki dugu, gure eskubideen jabe eginez, prozesu zorrotz bezain emankor baten bidez.

Ahaldundu egin gara. Herriz herri antolatu gara, galdeketaren aldeko indarrak bildu ditugu, herritarrei galdetu diegu eta sinaduren bidez gutxieneko atxikimenduak bildu ditugu, atxikimendu anitzak bildu ditugu, mintegiak eta tailerrak egin ditugu galdera adosteko... prozesu parte-hartzaile eta bateratzailea egin dugu galdeketara iristeko, eta gaur, hamaika boluntarioren laguntzarekin, herri galdeketak posible egin ditugu.

Gaur erakutsi dugu Nafarroan ere badela borondate eta konpromisorik erabakiaren bideari ekiteko. Ezina ekinez egiten delako. Horregatik, datozen hilabeteetan ere lanean jarraituko dugu, borondateak ehunduz, adostasunetan sakonduz eta herritarrek ahaldunduz, Euskal Herrian erabakia gauzatu arte, libre eta demokratikoki. Gaur pauso bat hurbilago gaude atzo baino helburu horretatik. Bide berri bat hasi dugu Nafarroan, jarraipena izango duen itxaropenarekin.